

Udaltzaingo moderno, inplikatu eta gertukoaren aldeko Plan Zuzentzaile berria onartu du Udalbatzak

- *Panak 2023-2026 urte bitartean udaltzaingoaren jarduna gidatuko duten erronkak, helburuak, adierazleak eta ekintzak jasotzen ditu eta helburu du Udaltzaingoa garai zein behar berrietara egokitzea, herriari zein herritarrei zerbitzu hurbilagoa eta kalitatezkoagoa eskaintzeko.*

Tolosa, 2023ko martxoak 31

Atzoko Osoko Bilkuran aho batez onartu zen 2023-2026 urteetako Tolosako Udaltzaingoaren Plan zuzentzaile berria. Plan honen helburu nagusia da egungo udaltzaingo zerbitzua garai zein behar berrietara egokitzen joatea, herriari zein herritarrei udaltzaingo talde moderno zein inplikatu buru izango duen zerbitzu hurbila eta kalitatezkoa eskaintzeko, momentuko zein etorkizuneko beharrei erantzuteko gai izango dena.

Ikuspuntu integraletik osatutako plana, herriaren zein herritarren zerbitzura lan eginez jarraitzeko

Plana garatzeko, lehen urratsa izan zen, hausnarketa prozesua egitea, barne zein kanpo diagnosis eginez. Udaltzaingoarekin egin da barne lanketa eta herritarrekin zein herriko talde eta eragile desberdinekin (babes zibila, ikastetxeak, auzo elkarteak, ostalari eta merkatariak...) kanpo lanketa. Modu horretara, egungo zerbitzuaren ikuspuntu eta ikuspegi integrala jaso da, hori oinarri hartuta etorkizuneko jardunbide amankomuna definitzeko.

Barne diagnosian aztertu dira udaltzaingo taldeak eskaintzen dituen zerbitzuak, pertsonak (udaltzainen profilak, formazioa, lan giroa...), baliabideak (instalazioak, ibilgailuak, aplikazio informatikoak...), barne kudeaketa (koordinazioa, barne komunikazioa...), harreman kanalak eta interes taldeak (herriko talde eta eragile desberdinak). Kanpo azterketan, aldiz, udaltzaingoaren inguruan herrian dagoen iritzia jaso da: indarguneak, gabeziak, hobetu beharrekoak, harreman mota, udaltzaingoaren zerbitzuaren ezagutza maila, besteak beste.

Udaltzaingoaren Plan Zuzentzailea, beraz, udaltzaingoaren eta herritarren iritzi zein ekarpenak kontuan hartuta osatu da. Hausnarketa fasea amaituta, misio, bisio eta balioak zehaztu dira (balioak: gertutasuna, herritarrak zerbitzatzeko bokazioa, lankidetzeta eta kolaborazioa, konfiantza eta errespetua) eta 3 ardatz nagusitan banatu da plana: kudeaketa, pertsonak eta baliabideak eta kanpo harremanak. Ardatz bakoitzeko helburu estrategikoak eta helburu horiek egikaritzeko jarraibide edota ekintzak zehaztu duira.

Kudeaketa alorrean, udaltzaingoaren lanak antolatu eta homogeneousatzea, prebentzio eta proaktibotasunera bideraturiko kudeaketa sistema sortzea edota barne koordinazio eta komunikazioa hobetzea dira 2023-2026 urte bitarterako jasotako helburu nagusiak.

Pertsona eta baliabideen alorrean, halaber, Udaltzaingoaren Plan Zuzentzaileak helburu du kalitatezko zerbitzua emateko behar den talde osatu eta gaitua eskaintzea eta horretarako beharrezkoa den materialez hornitzea. Honen baitan aurreikusitako dira, esaterako, udaltzaingoaren formazioa, eraikin berria, aplikazio berri baten sorrera, ibilgailuen horniketa...

Kanpo harremani dagokienean, interes taldeekin koordinazioa hobetzea eta kanpo komunikazioa sendotzea dira Plan Zuzentzaileak jasotako helburu nagusiak.

Proiektu bakoitza gauzatzeko arduradunak eta kronograma ere zehaztu dira, planaren helburuen maila neurtzeko adierazle sistema baten bidez eta planaren jarraipen operatiboa zein estrategikoa egiteko Gobernantza Eredu bat adostu da.